

Andoni Eizagirre Eizagirre

Gizabidea

Joxe Azurmendik honela dio:

Kontzientzia kooperatiboak historiaren filosofia propio bat ikasi behar du, giza historia (lana, ekonomia, politika) modu propioan interpretatzeko ikuspegi propioa garatu, eta araberan konprometatu gizarte ekintzan.

Gaur eta hemen, ideia horren argitan birpentsa genezake ‘Zergatik eta zertarako euskaldun?’ auzia.

Kultura beharrizanak sentitu, pentsatu eta bizitzeko modua da, eta beharrizan horiei erantzun edota eraldatzeko jarrera, portaera eta erakundeen multzoa ere bai. Euskal kulturaz hitz egitea zilegi da. Izan ere, gurean ohituraz senitarteko eta bizilagunekin, auzokideekin eta ondasunekin harremanak modu berezian antolatu izan dira.

Alde horretatik, askatasunak jarrerazko hiru dimentsio izan ditu. Alde batetik, pertsonari otseintzatik eta iruzurretik aske izatea zor zaio. Bestetik, pertsona askeak nork bere buruaren eta lanaren jabe izan behar du; aukeramenik eta ekinbiderik gabe ez dago pertsona askea izaterik. Agirre lehendakariak kaparetasuna pertsona joputza errukarritik aske izateko eta guztiok lanaren bidez eskuak beti garbi erabilia bizitzeko modu bezala interpretatu zuen. Hirugarrenik, baina, pertsona askea –euskalduna izatea– ardurak hartzea eta hitzekoa izatea ere bada. Etxerakoak (etxerako lotuak) gurasoei hitzematzen zien ondasunak arduraz erabili eta etxeak aurrera aterako zituela (*jaubetu*). Auzotasuneko bizimoduak, berriz, etxeen arteko zerbitzu komunaren parte izatea eta haietan parte hartzea zekarren.

Pertsona askea besteei lotua dago, baina ez otseintzatik bizi delako, edo mendearen hartuta, baizik eta askatasuna elkarrekikotasun harremanetan mamitzen delako; erantzukizunaren jabe eginda, alegia. Per-

tsona lotuan eta loteslean zetzan «euskaldunki jokatzeari», Arizmendiarrietaren hitzetan.

Orain gutxi arte kontzientzia hori fede kristauak argitu du. Aita Barandiaranen pasartea aukerakoa zaigu:

Zer da gizabidea? Ni zertarako naiz? Galde oni ematen diogun erantzueraz da gizabidea, gure gizabidea. Ni ez naiz erabat nere baitan. Nere baitan banintz, ez nintzake hilko. Banaiz orde. Beste baten baitan, nola nahiz ere. Beste bat ori ni baino aundiagoa: Jainkoa, alegia. Beraz Jainkoaren baitakoa naiz. Ori aitortu bear: Izatez Jainkoari lotua nagola. Bera maite bear det: orrela aitortuko det Berari lotua nagola. Zertarako naiz bada? Jainkoa maitatzeko eta Berak maite dituanak ere –lagun urkoak– maitatzeko. Ara or gizabidea.

Gizabidearen sustraikoari eutsiz, Pako Garmendiak hiru galdera utzi zizkigun: zertatik bizi?, zertarako bizi?, nola bizi elkarrekin? Euskal izanbidea, eta gure arteko elkarbizitza, galdera horiei loturiko helburu eta bitartekoen gaineko pentsaera, sentiera eta jokaera berezi batek zertu ditu. Gurean, zertarakoa –Orixeri jarraituz– eskukoa izatean datza.

Azurmendik kontzientzia kooperatiboaz egindako hausnarketan, pertsona da zentrala, subjektu moral gisa ulertua, bat eta bakarra, nor bere buruaren jabea eta erantzulea. Gaur egunean gure baliabide kulturalak zeharo motelduak ditugu, neurri batean sekularizazio trakets batek eraginda, Azurmendik azkenaldian iradoki bezala.

Pertsonak, inoren mendeko izan gabe, eta oinarritzko bitartekoen jabe izanik, bere kontzientzia pribatuan eta borondate askearekin kultibatzen ditu balioak eta bizi-asmoak (pertsona transzendentea). Humanismo pertsonalistak, «gizakiaren tragedia» eta «pentsamendu mende-baldarraren krisia» puri-purian zeuden sasoi ilunean, kontzientziaren garrantziaz jabearazi gintuen, Azurmendik sarri nabarmendu lege. Bestetik, kontzientziak (zer naiz ni moralki eta zer nahi dut) balio jakin batzuk lehenesten ditu. Euskal herrigintzan, esate baterako, historia-ren ideia bat eta gizakiaren ulermen bat lehenetsi izan dira.

Hau da galdera: gizabidearen argitan nola pentsatu gaur egunean geroztik? Zergatik eta zertarako euskaldun?